

## AGINTARIAK ETA LANGILEAK

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 5035

*777/2025 EBAZPENA, azaroaren 3koa, Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez María Aránzazu Ansola Aizpiri andrea Arreta Integratuaren Koordinazioko Administrazio Taldeko buru (kodea: 31471) izendatzen baita, izendapen askez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuan.*

204/2024 Ebazpenaren bidez, deialdi bat egin zen Arreta Integratuaren Koordinazioko Administrazio Taldeko buruaren lanpostu bat izendapen askez hornitzeko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuan.

Batzordeak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, María Aránzazu Ansola Aizpiri andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori Arreta Integratuaren Koordinazioko Administrazio Taldeko buru izendatzea, izendapen askez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuan.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan xedatutakoarekin,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– María Aránzazu Ansola Aizpiri andrea Arreta Integratuaren Koordinazioko Administrazio Taldeko buru (kodea: 31471) izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuan.

Bigarrena.– Izendapen honek 2025eko azaroaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendapenak egin dituen organoak edozein unetan kargugabetu ditzake, bere eskumen-ahalez, izendapen askeko sistemaren bidez izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo mugiarazteak honako hau eragingo du: langilea beste lanpostu funtzional batera lekualdatuko da, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko die. Hain zuzen, ezaugarri berberak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik bera zegoen antolakuntza- eta lurralde-eremu berberetan. Atxikitze horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta lanpostua hornitzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Interesdunari eta Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuari ebazpen honen berri ematea.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Mendaro, 2025eko azaroaren 3a.

Debabarreneko ESko zuzendari-gerentea,  
ASIER ESNAL ALBIZU.